

Atzerritarrentzako errusieraren irakaskuntza: Aspektuaren erabilera aginteran

Leila Iraola Lasa

Itzulpengintza eta Interpretazioa

2015/2016 ikasturtea

Tutorea: Nerea Madariaga Pisano

Jakintza-arloa: Eslaviar Filologia

Saila: Ikasketa Klasikoak

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan, errusiera atzerriko hizkuntza gisa irakasten duenaren lekuan jarri eta errusieraren gramatikako atal zehatz bat landuko da: aspektuaren erabilera aginteran. Lehenik eta behin, lan hau eginda zer helburu lortu nahi diren azalduko da, baita helburu horiek lortzeko baliatuko den metodologia ere. Jarraian, gaiari helduko zaio eta bi atal nagusitan banatuko da lana: deskribapen gramatikala eta analisi praktikoa. Lehenengo atalean, ahalik eta sakonen deskribatuko da esku artean dugun gramatikaren alderdia, eta horretarako adibideak emango dira garbi geldi dadin azalpena, ezinbestekoa baita irakasle batentzat azaldu behar duena ongi ezagutzea. Jada azalpena osatuta dagoenean, ikasleek zer-nolako zailtasunak izan ditzaketen identifikatu ahal izango dira, azken finean zailtasun horiek baldintzatuko baitute azalpena nola eman eta zein ariketa egin. Bigarren atalean, gaur egun errusiera irakasteko eskura ditugun baliabideak aztertuko dira. Baliabide horien artean irakaskuntzarako ohikoak diren eskuliburu orokorrak aztertuko dira: *Русский язык: 5 элементов* (Эсмантова, 2009 eta 2011), *Поехали!* (Чернышов, 2009), *Русский язык для начинающих. Книга 1* (Овсиенко, 2008), *Русский язык. Средний этап. Книга 2* (Овсиенко, 2006) eta *Вперёд!* (Головко, 2006); baina baita eskuliburu espezifikoak ere: *Виды русского глагола: значение и употребление* (Караванов, 2005), *Употребление видов глагола в русском языке* (Скворцова, 2005). Horietaz gain, baliagarriak izan daitezkeen beste mota bateko liburuak ere aztertuko dira, hots, gramatika praktikoa: *El ruso. Gramática práctica* (Pulkina, 2000) eta *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Глазунова, 2007). Liburu bakoitzak gure gaia nola lantzen duen (azalpen gramatikalik ematen duen ala ez, azalpenak zuzenak diren ala ez, nahikoa al den emandako azalpenekin...) eta zer motatako ariketak eskaintzen dituen ikusiko dugu. Bestalde, liburu horiek aurrez identifikatutako zailtasunei zer irtenbide ematen dieten aztertuko da. Behin lan hori amaituta, ondorio batzuk aterako dira eta aztertutako errusierako eskuliburuak gai hori irakasteko baliagarriak diren ala ez baloratuko da. Nahiz eta balorazio orokor bat egingo den, kontuan izan behar da ikasleen ezaugarrien arabera aldatu egiten dela irakasteko modua, eta ondorioz, baita erabiliko diren baliabideak ere.

AURKIBIDEA

1.	HELBURUAK ETA METODOLOGIA	3
2.	ASPEKTUA ETA AGINTERA	4
2.1.	Aspektuaren eraketa eta erabilera	4
2.1.1.	Aspektua	4
2.1.2.	Aspektuaren eraketa	5
2.1.3.	Aspektu burutugabearen erabilera	6
2.1.4.	Aspektu burutuaren erabilera.....	8
2.2.	Aginteraren eraketa eta erabilera	9
2.2.1.	Aginteraren eraketa.....	9
2.2.2.	Aginteraren erabilera orokorrean.....	10
3.	ASPEKTUAREN ERABILERA AGINTERAN	11
3.1.	Baiezkoetan.....	11
3.2.	Ezezkoetan	12
3.3.	Aspektua aginteran eta informazio egitura	14
4.	MATERIAL DIDAKTIKOAREN ANALISI PRAKTIKOA.....	16
4.1.	Eskuliburu orokorrak	16
4.1.1.	<i>Русский язык: 5 элементов</i>	16
4.1.2.	<i>Поехали!</i>	19
4.1.3.	<i>Русский язык</i>	24
4.1.4.	<i>Вперёд!</i>	26
4.2.	Eskuliburu espezifikoak.....	28
4.2.1.	<i>Виды русского глагола: значение и употребление</i>	28
4.2.2.	<i>Употребление видов глагола в русском языке</i>	32
4.3.	Ariketa liburuak eta gramatika praktikoak	36
4.3.1.	<i>El ruso. Gramática práctica</i>	36
4.3.2.	<i>Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях</i>	39
5.	ONDORIOAK.....	41
6.	ERREFERENTZIAK	43

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Gradu Amaierako Lan honen helburua aginterako aspektuaren erabilera irakastean ikasleak zer-nolako zailtasunak izan ditzakeen identifikatu eta horiei aurre egiteko zer baliabide ditugun aztertzea da. Azterketa hori errusiera atzerriko hizkuntza gisa irakasten duenaren ikuspuntutik egingo da, eta ez da ahaztu behar ezinbestekoa izango dela ikasle taldearen ezaugarriak identifikatzea, irakasteko modua eta materiala baldintzatuko dituztelako.

Bi ataletan banatuko da lana: deskribapen teorikoa eta analisi praktikoa. Lehenengo atalean, sakonki deskribatuko da aztertuko den gramatikako alderdia. Horretarako, honako liburu hauek baliatuko dira: *Виды русского глагола: значение и употребление* (Караванов, 2005), *Чистая грамматика* (Ласкарева, 2012), *Russian Grammar* (Levine, 2009), *El ruso. Gramática práctica* (Pulkina, 2000), *Русская грамматика I* (Шведова, 1980), *Употребление видов глагола в русском языке* (Скворцова, 2005), *Russian Grammar* (Swanwick, 2013), *Функциональная грамматика русского языка* (Шелякин, 2001) eta *A Reference Grammar of Russian* (Timberlake, 2004). Bigarren atalean, analisi praktikoa, gaur egun eskura zer-nolako ariketak ditugun jakiteko, eskuliburu orokorrak, eskuliburu espezifikoa, ariketa liburuak eta gramatika praktikoa aztertuko dira; hala nola *Русский язык: 5 элементов* (Эсмантова, 2009 eta 2011), *Поехали!* (Чернышов, 2009), *Русский язык для начинающих. Книга 1* (Овсиенко, 2008), *Русский язык. Средний этап. Книга 2* (Овсиенко, 2006), *Вперёд!* (Головко, 2006), *Виды русского глагола: значение и употребление* (Караванов, 2005), *Употребление видов глагола в русском языке* (Скворцова, 2005), *El ruso. Gramática práctica* (Pulkina, 2000) eta *Грамматика русского языка в упражнениях и комментариях. Морфология* (Глазунова, 2007). Amaitzeko, aztertutako guztia kontuan hartuta, eskura ditugun baliabideak baloratu eta ondorioak aterako dira.

2. ASPEKTUA ETA AGINTERA

2.1. Aspektuaren eraketa eta erabilera

2.1.1. Aspektua

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da aspektua eta agintera kontzeptuak bananduta ulertzea, eta horretarako, aditza aztertu beharko dugu. Errusieraz, honako kategoria hauek adierazten dira aditzetan: Aspektua (burutua eta burutugabea), denbora (lehenaldia, orainaldia eta geroaldia), modua (indikatioa, baldintza eta agintera), pertsona (lehena, bigarrena eta hirugarrena), boza (aktiboa eta pasiboa), generoa (femeninoa, maskulinoa eta neutroa) eta numeroa (singularra eta plurala) (Swanwick, 2013; 82). Euskararekin alderatuz gero (edo baita mendebaldeko beste hizkuntza gehienekin ere), desberdintasun batzuk topa ditzakegu kategoria hauetan, baina nabarmenena, inolako zalantzarik gabe, aspektuarena da. Hizlariak berak hautatzen du zein aspektu erabili ekintza hautematen duen moduaren arabera. Gure gertuko hizkuntzekin dagoen desberdintasun nagusia izaki, errusiera ikasten duten ikasleentzako zailtasun gehien dakartzan ataletako bat dela esan dezakegu.

Kontuan izan behar da euskarazko formetarako, bi infinitibo izango ditugula errusieraz: alde batetik, aspektu burutugabea (читать, писать) eta bestetik, aspektu burutua (прочитать, написать). Aspektuaren bereizketa lehenaldian eta geroaldian bakarrik egiten da; orainaldian beti aspektu burutugabea erabiltzen da.

Aspektuak bereizteko arau orokor bat badela esan daiteke (aditz burutugabea, errepikatzen edo denboran luzatzen diren ekintzetarako, eta aditz burutua, emaitza izan duen ekintza zehatzetarako), baina garrantzi gehiago lortzen du komunikazio-egoeraren arabera eginiko hautuak; beraz, araua baliagarria da aspektuei buruzko ideia orokor bat egiteko, baina kasu askotan beste irizpide batzuk hartu beharko dira kontuan.

Gainera, ikasleentzat aspektua kategoria arrotza bada, ezinbestekoa izango da ongi azaltzea eta ez mugatzea azalpena egoera zehatzetara: aspektu-balioek ekintzaren berezitasunak erakusten dituzte (behin gertatu den, errepikatzen den, prozesua den, aldi berean gertatzen diren, etab.), eta kasu horietan aspektua aldatzen bada, gertaeraren irudia erabat eraldatzen da; hau da, esaldiaren eduki objektiboa aldatzen du egoerak berak, aspektuaren bidez (Каравапов, 2005: 4).

2.1.2. Aspektuaren eraketa

Bi modu daude aditz-aspektuak osatzeko: eraketa primarioa edo lehen mailakoa eta sekundarioa edo bigarren mailakoa. Oinarrizko aditzak aspektu burutugabea dutenak izan ohi dira (hiztegian ageri direnak), nahiz eta badauden oinarrizkoak diren aditz burutu batzuk ere; adibidez, aditz monosilabo batzuk (*дать, лечь, сесть, стать* eta *деть*) eta *-и-* atzizkia duten zenbait aditz (*кончить, решить* eta *бросить*) (Pulkina, 2000: 272). Eraketa primarioa deiturikoan, aspektu burutua eratzeko burutugabea hartzen da oinarri. Sekundarioan edo bigarren mailakoan, aldiz, alderantziz gertatzen da; hau da, burututik osatzen da burutugabea.

Eraketa primarioan bi modu daude aditz burutua eratzeko:

1. Aurrizki gabeko aditz burutugabeari aurrizki bat gehituta (*делать-сделать, писать-написать*). Bi mota bereiz daitezke aurrizki horien artean: aditzari aspektua bakarrik aldatzen diotenak (*строить-построить*) eta aditzari aspektua aldatzeaz gain, esanahian ñabardurak gehitzen dituztenak (*писать* idatzi – *переписать* berridatzi – *списать* kopiatu). Azken kasu horietan, aditz burutugabeak bigarren mailako eraketaren bidez lortzen dira. (Pulkina, 2000: 273)
2. Atzizki baten bitartez; hau da, aditz burutugabeari atzizkia kenduta, aldatuta edo gehituta: *толкать-толкнуть* (Pulkina, 2000: 272), *отдыхать-отдохнуть* (Ласкарева, 2012; 67).

Eraketa sekundarioan edo bigarren mailakoan, aditz burutuaren erroari atzizki bat gehitzen zaio (*овладеть-овладевать*) edo atzizkia ordezkutzen da (*изучить-изучать, перестроить-перестраивать*). Hemen sartzen dira eraketa primarioaren bidez esanahi desberdina lortzen duten aditz burutuak: aurrizki bidez sortutako aditz burutu horiei atzizkia gehituta sortzen dira aditz burutugabeak (*писать-списать-списывать*) (Pulkina, 2000: 282).

Hala ere, badira beste mota bateko aditz bikoteak ere; adibidez, aditz batzuen kasuan, aditz burutugabeak eta burutuak erro desberdina dute (asko erabiltzen diren aditzekin gertatzen da, batez ere): *говорить-сказать, брать-взять* (Pulkina, 2000: 296). Beste kasu batzuetan, azentuarekin adierazten da aspektua: *разре́зать-разре́зать* (Pulkina, 2000: 299).

2.1.3. Aspektu burutugabearen erabilera

Aspektu burutugabea duten aditzek ez dute aditzera ematen ekintza batek amaiera (izan) duen ala ez, ez diote ekintzaren burutze edo osatzeari erreferentziarik egiten. Hortik dator aditz burutugabeek ekintza bat prozesuan erakusteko duten gaitasuna; eta, hain zuzen ere, mugarik gabeko ekintza bat izaten da (Шведова I, 1980; 581). Beraz, izenak dioen moduan, aditz burutugabeek ekintza denboran gertatzen dela adierazten dute, baina ez da zehazten ekintza amaitu denik, emaitza izan duen ala ez (Pulkina, 2000: 191). Honako hauek dira aspektu burutugabearen ezaugarriak:

a) Aditz burutugabeek gertatzen ari den ekintza bat adierazten dute, prozesuan dagoen ekintza bat, osotasunera iritsi den adierazi gabe. Prozesuaren testuingurua adierazteko, aditz burutugabeak iraupena adierazten duten hitzekin ager daitezke (sei hilabetez, luzaroan, etab.) (Скворцова, 2005: 5). Beraz, esan dezakegu, kasu batzuetan aditz burutugabeek *zenbat denboraz?* galderari erantzuna ematen diotela (Скворцова, 2005: 8).

1. adibidea: *Рабочие строили общежитие шесть месяцев* (Скворцова, 2005: 5) → Langileek sei hilabetez egoitza eraikitzen jardun zutela adierazten da, baina ez dakigu eraikuntza amaitu zuten; garrantzia prozesuak dauka.

2. adibidea: *Я писал письмо* (Pulkina, 2000: 191) → Eskutitza idazten jardun nuela badakigu; hau da, ekintzaren prozesua gertatu zela, baina ez dakigu eskutitza amaituta dagoen ala ez.

3. adibidea: *Антон учил новые слова час, но ещё плохо знает их* (Скворцова, 2005: 8) → Antonek ordubetez jardun zuen hitz berriak ikasten, baina oraindik ez dakizki ondo; hots, nahiz eta denbora horretan ekintzan aritu, ez da iritsi emaitza lortzera, hitzak guztiz ikastera.

b) Aditz burutugabeak bi predikatu paralelo gisa agertzen direnean, bi ekintzak batera gertatu zirela edo gertatuko direla esan nahi du.

4. adibidea: *Виктор переводил текст и смотрел новые слова в словаре* (Скворцова, 2005: 11) → Viktorrek, testua itzultzen ari zenean, hitz berriak hiztegian begiratu zituen; hau da, bitarte horretan begiratu zituen hitzak.

c) Aditz burutugabeek ekintzen errepikapena adieraz dezakete. Hori dela eta, errepikapena adierazten duten hitzekin ager daitezke; adibidez, sarritan, gehienetan, askotan, ohi, aldiro, egunero...

5. adibidea: *Раньше он обычно завтракал дома* (Скворцова, 2005: 12) → Lehen, etxean gosaldu ohi zuen; beraz, ohitura bati buruz ari denez, errepikatzen den ekintza da.

d) Aditz burutugabeek ekintzaren gertaerari erreferentzia orokor bat egin diezaiokete, ekintzaren izaera (edo prozesuaren errepikapena) kontuan izan gabe. Azken finean, ekintzari egiten zaio erreferentzia, eta emaitzak garrantzia galtzen du.

6. adibidea: - *Что было на студенческом вечере?* - *Читали стихи русских поэтов* → Ekintza aipatu bakarrik egiten da.

7. adibidea: - *Вы читали стихи Пушкина?* - *Читал.* → Ekintzaren existentzia edo existentzia falta adierazten da.

8. adibidea: *В зале было тихо: это читали стихи русских поэтов* → Zer ari den gertatzen jakinarazten da.

(Скворцова, 2005: 16)

e) Esaldiak ezezkoak direnean, aditz burutugabeek ekintzarik ez zela egon edo ez dela egongo adieraz dezakete.

9. adibidea: *Хуан не переводил текст, потому что преподаватель не задавал перевода* (Скворцова, 2005: 52) → Juanek ez zuen testua itzuli, irakasleak ez ziolako itzultzeko eskatu; beraz, Juan itzultzen ere ez zela hasi uler dezakegu.

10. adibidea: *Я не буду решать эту задачу, учитель её не задавал* (Скворцова, 2005: 63) → Ez dut problema hau ebatziko, irakasleak ez didalako ebatzeko eskatu; beraz, ez dut zertan ebatzi.

f) Geroaldian, zehaztu gabeko luzera izango duen ekintza baten hasiera gertatuko dela adierazteko erabil daiteke aspektu burutugabea.

11. adibidea: *Закройте книги. Откройте тетради. Сейчас вы будете писать контрольную работу* (Скворцова, 2005: 59)

2.1.4. Aspektu burutuaren erabilera

Aditz burutuek osotasunean burutu zen edo burutuko den ekintza bat adierazten dute; hau da, amaierara arte egin zen edo egingo den ekintza bat, eta ondorioz, emaitza izan zuena edo izango duena. Hona hemen aspektu honen ezaugarriak:

a) Aditz burutuek ekintza osotasunean (hasi+iraun+amaitu) burutu dela adierazten dute. Ekintzaren osotasuna adierazteko, aditz burutuak modu honetako hitzekin ager daitezke: azkenean, ordubetea... (Скворцова, 2005: 5). Egoera batzuetan, beraz, aditz burutuek *zenbat denboran?* galderari erantzungo diote (Скворцова, 2005: 8).

12. adibidea: *Наконец рабочие построили общежитие. Теперь студенты будут жить в новом общежитии* (Скворцова, 2005: 5) → Azkenean (prozesu baten ostean), langileek egoitza eraikitzea (amaitzea) lortu zutela adierazten da eta baita ekintza horren emaitza lortzeak ekarritako ondorioa ere: orain ikasleak egoitza berri batean biziko direla.

13. adibidea: *Я написал статью* (Pulkina, 2000: 191) → Artikulua idatzi nuela eta amaituta dagoela adierazten da; hau da, artikulua idaztearen ekintzak emaitza izan zuela (artikulua bera).

14. adibidea: *Антон выучил новые слова за час и теперь хорошо знает их* (Скворцова, 2005: 8) → Antonek ordubetea ikasi zituen hitz berriak eta orain ongi dakizki. Ikus dezakegu denborak berak adierazten digula denbora muga horretan iritsi zela emaitza lortzera.

b) Aditz burutuak elkarren ondoko bi predikatu gisa agertzen direnean, ekintzak segidan gertatu zirela edo gertatuko direla esan nahi du; hots, bata bestearen ondoren.

15. adibidea: *Виктор перевёл текст и вернул другу словарь* (Скворцова, 2005: 11) → Viktorrek testua itzuli zuenean, lagunari itzuli zion hiztegia; hau da, testua itzultzea amaitu zuenean eman zion hiztegia lagunari.

c) Aditz burutuek ekintza bat ez dela bere osotasunean errepikatzen adieraz dezakete, ekintza puntual bat dela.

16. adibidea: *Вчера он позавтракал в кафе* (Скворцова, 2005: 12) → Atzo kafetegian gosaldu zuen; egun zehatz batean gertatutako ekintza adierazten du.

d) Esaldiak ezezkoak direnean, aditz burutuek ekintzak ez zuela emaitzarik izan adierazten dute. Aipatzen den ekintza hasi bazen edo hizlariak uste badu hasi zela, baina ez bazuen emaitzarik lortu, aditz burutua erabil daiteke (hizlariaren pertzepzioaren arabera hautua delako).

17. adibidea: *Хуан не перевёл текст, потому что в нём слишком много новых слов* (Скворцова, 2005: 52) → Juanek ez zuen testua itzuli, hitz berri asko zituelako; beraz, Juan testua itzultzen saiatu zen, baina ez zuela lortu uler dezakegu.

18. adibidea: *Я не решаю эту задачу, она слишком сложная* (Скворцова, 2005: 63) → Ez dut problema hau ebatziko, zailegia delako; beraz, ebatzi gabe geldituko da, nahiz eta saiatu.

e) Geroaldian, aditz burutuak ekintza bakar eta osatu bat adierazteko erabiltzen dira; hain zuzen ere, hizlariaren ikuspuntutik burutzera edo amaierara iritsiko den ekintza bat adierazteko.

19. adibidea: - *Ты уже написал письмо родителям? - Нет ещё. Но завтра обязательно напишу* (Скворцова, 2005: 59)

2.2. Aginteraren eraketa eta erabilera

2.2.1. Aginteraren eraketa

Aginterak bigarren pertsonako singularra eta pluralaren formak ditu soilik. Aditza aginteran jartzeko aditz-erroa hartu behar da eta aditzaren konjugazioan azentua non doan erreparatu:

1) Lehen pertsona singularreko aditzaren amaierak azentua badu (-y/-ю), -u(*me*) amaiera azentuduna gehitzen zaio aditz-erroari: *говорить* > *говорю* > *говори(ме)*; *ждать* > *жду* > *жди(те)*. Kontuan izan behar da konjugazioko arau berberak erabiltzen direla aginteraren eraketan; beraz, kontsonante-alternantzia duten aditzek aldaketa bera jasango dute aginteran ere (Levine, 2009: 254).

2) Azentua aditzaren erroan doanean, bi azpitalde bereiz ditzakegu eraketan:

a) Aditz-erroan *-й* amaiera dutenak: Talde honetakoak dira *-а-вай* erroa dutenak ere, nahiz eta azentua amaieran izan: *открыть* > *открой-* > *открой(те)*; *давать* > *да-вай-* > *давай(те)*.

b) Bestelako amaiera bat duten aditz-erroak: Erroaren amaieran bokala badago, galdu egiten du. Talde honetako aginterak *-ь* hizkiaz amaitzen dira, baita aurreko kontsonantea beti gogorra den horietakoa bada ere: *резать* > *рез-* > *режь(те)*; *готовить* > *готов-* > *готовь(те)*. Baina *-и* bokalaren aurretik bi kontsonante batera badaude, bokala ez da inoiz galtzen: *кончить* > *кончи-* > *кончи(те)* (Levine, 2009: 254, 255).

Horietaz gain, badaude agintera irregularra duten aditz batzuk ere: *есть* > *ешь(те)*; *дать* > *дай(те)*; *пить* > *пей(те)* (Levine, 2009: 255).

2.2.2. Aginteraren erabilera orokorrean

Aginterako modua aginduak emateko edo eskariak egiteko erabiltzen da (Levine, 2009: 253). Agintera erabiltzean, hizlariak autoritate gisara jokatzeko du eta hartzaileari eskatzen dio bere nahia edo agindua gauzatzeko edo betetzeko geroaldiko uneren batean (Timberlake, 2004: 374).

Aginteraren oinarrizko balioa ekintza bat egitera bultzatzea bada ere, ñabardura modal desberdinak izan ditzake intonazioaren edo beste tresna linguistiko batzuen arabera: eskaera, agindua, erregua eta gomendioa (Шелякин, 2001: 120). Hurrengo atalean detaile handiagoarekin ikusiko ditugu aginteraren balio modalak.

3. ASPEKTUAREN ERABILERA AGINTERAN

Aginteran, aspektuaren erabilera bi taldetan bana daiteke: baiezko aginterak eta ezezko aginterak. Ikusiko dugun moduan, banaketa hori arrazoi semantikoengatik egiten da, baiezko eta ezezko aginteretan faktore desberdinak antzematen baititugu aspektua hautatzeko orduan. Lehenago edo geroago, ikaslea errusiera ikasten aurrera doan heinean, aspektuaren erabilerak dituen ñabardurez ohartzen joango da, eta unereren batean konturatuko da ez diotela balio ordura arte ikasi dituen aspektuen erabilera orokor guztiek. Horrek guzti horrek are zailagoa bihurtzen du aditzaren aspektuaren kategoria; bestela ere aspektuaren jabeakuntza zaila bada errusiera atzerriko hizkuntza gisa ikasten duenarentzat, maila igo ahala, beste motako zailtasun berriak ageriko zaizkio ikasleari.

3.1. Baiezkoetan

Baiezko aginteraren kasuan, aspektuaren erabilera ohikoa dela esan dezakegu; hau da, aspektuak bereizten dituzten ezaugarri berdinak hartzen dira kontuan zein aspektu erabili hautatzeko:

Baiezko aginteretan **aspektu burutugabea** honako kasuetan erabiltzen da:

1. Ekintza bere prozesuan nola egin adierazteko: *Читайте медленнее* (Pulkina, 2000: 331); *Пишите внимательнее, не спешите* (Скворцова, 2005: 69).
2. Ekintza bat errepikatzea eskatzeko: *Чаще пишите письма домой* (Скворцова, 2005: 69); *Пиши нам чаще* (Levine, 2009: 255).
3. Gomendio orokor bat emateko: *Покупайте овощи на этом рынке; Берегите здоровье* (Levine, 2009: 255).
4. Ekintza bati hasiera emateko, emaitza kontuan hartu gabe. Kasu horietan, normalean, egileak badaki ekintza hasi behar duela. Adibidez: ikasleak idazlan bat idazteko prestatu dira, testua entzun dute eta irakasleak honakoa esaten die: *Пишите!* (Pulkina, 2000: 331) edo - *Всё понятно? Вопросы есть? - Нет. - Тогда пишите.* (Скворцова, 2005: 69).
5. Ekintza baten jarraipena eskatzeko: - *Что же вы остановились? - Читайте дальше.* (Pulkina, 2000: 331).

6. Egileari ekintza bat hasteko baimena emateko edo gonbidapena egiteko: *Приходите к нам сегодня обедать* (Pulkina, 2000: 331); - *Можно войти?* - *Входите!* (Скворцова, 2005: 69).
7. Hartzaileari ekintza egiteko eskatzen zaionean, baina emaitzari erreferentzia zuzena egin gabe: *Уже 8 часов! Вставай! Можешь опоздать на занятия!* (Скворцова, 2005: 69).

Aditz burutuak, aldiz, testuinguru hauetan erabiltzen dira baiezko aginteretan:

Aditz burutuak behin egingo den eta emaitza izango duen eskaera, gomendio, agindu... zehatza adierazten dute; hau da, emaitza da lortu nahi dena aspektu hau erabiltzean. Aditz burutua iragankorra bada, ezinbestean objektu zuzenarekin erabili beharko da: *Возьмите ваши тетради* (Pulkina, 2000: 330); *Напишите к среде сочинение о поездке в Петербург* (Скворцова, 2005: 69); *Запишите мой телефон; Ты идёшь на почту. Купи мне марки.* (Levine, 2009: 255).

3.2. Ezezkoetan

Orain arte aspektuaren benetako aspektu-balioak edo balio “aspektualak” erreparatu ditugu, hau da, aspektu batek ala besteak ekintzaren izaera, luzera, amaiera edo emaitza adierazten dituzenean. Horiek aspektuaren “aspektu-balioak” deituko ditugu.

Beste testuinguru batzuetan, ordea, aspektuak esanahi modala adierazten du. Balio modalek gaitasuna/gaitasun eza, ahal izatea/ezinezkotasuna, baimena/debekua, behar izanak, etab. adierazten dituzte. Adibidez, *В аудиторию нельзя входить: там идёт экзамен* esaldian, infinitiboan dagoen aditz burutugabeak debeku balioa du; baina, *В аудиторию нельзя войти: она закрыта на ключ* esaldian, infinitiboa aditz burutua da eta ekintza burutzea (fisikoki) ezinezkoa dela adierazten du. Aspektu-balioek eta balio modalek duten desberdintasuna honako hau da: aspektuaren balio modala erabiltzen denean, ekintza ez da benetan gertatzen, baizik eta ekintzaren ideia orokor bat bakarrik edukitzen da, ekintzak berak adierazten duena (kasu horretan, infinitiboa); aspektu-balioak erabiltzen direnean, ordea, errealitatean gertatzen ari den ekintza bat transmititzen da. (Караванов, 2005: 5).

Horixe bera gertatzen da ezezko aginteretan (aginteran doan aditzak ezezko partikula daramanean aurretik): aditzak aspektu-balioen izaera galdu egiten du eta aspektuak balio modala adierazten du.

Aginteran ezezko partikula aditz burutugabeekin doanean, **debeku** izaera du esaldiak:

20. adibidea: *Мы ждём вас в семь часов. Не опаздывайте!* (Караванов, 2005: 131); *Не опаздывайте на занятия.* (Скворцова, 2005: 77) → Berandu ez iristeko eskatzen ari da.

Baina, ezezko partikula aditz burutuekin doanean, **abisu** izaera hartzen du:

21. adibidea: *Смотри не опоздай завтра на лекцию! Ты уже четыре раза опоздал на этой неделе!* (Караванов, 2005: 131); *Смотри, не опоздай на поезд.* (Скворцова, 2005: 77) → Berandu ez iristeko eskatzen ari da, baina hizlariak uste duelako hartzailea berandu iristeko arriskua dagoela.

Aditz burutua erabiltzen denean, gerta daitekeen ekintza hori istripuztat, oharkabe edo nahi gabe gertatzen den ekintzatzat jotzen da (Караванов, 2005: 132). Horregatik, gehienetan aspektu burutuarekin erabiltzen diren ezezko aginterak esanahi negatiboa duten edo ondorio txar bat dakarten ekintzak izan ohi dira: *Не упадите: здесь скользко* (Pulkina, 2000: 332); *Не обожгись: чай горячий употребляется* (Караванов, 2005: 133). Batzuetan abisu izaera indartzeko *смотри(те)...*(*a то*) edo *осторожно* hitzak erabiltzen dira: *Смотри, не опоздай; Осторожно, не урони эту вазу* (Levine, 2009: 256).

Kasu batzuetan, aginteran aspektu burutugabea erabilita, norbaitek eginiko mehatxu bat ez axola izatea adierazten da: - *Я скажу (Aditz burutua) вашему научному руководителю, что вы совсем не занимаетесь диссертацией. - Говорите!* (Aditz burutugabea). Nahi izanez gero, aditz burutua erabiltzea (*Скажите!*) posible litzateke, baina ez luke adieraziko hizlariari ez zaio axola mehatxua. Hala ere, axola ez izatea adierazteko orduan rolik erabakigarriena ez du aspektuak betetzen, intonazioak baizik. Mehatxua ezezkoan egiten bada, ordea, erantzunaren aspektuak burutugabea izan beharko du ezinbestean, bestela abisu izaera hartuko bailuke: - *Я не приглашу (Aditz burutua) тебя на свой день рождения. - Не приглашай!* (Aditz burutugabea) (Караванов, 2005: 141). Alderantziz gertatuko balitz ere, hau da, hizlaria mehatxuaren ondorioz beldurtuko balitz eta ekintza hori ez burutzeko eskatuko balio, aditz burutugabea erabiltzea da aukera

bakarra: - *Я скажу (Aditz burutua) вашему научному руководителю, что вы совсем не занимаетесь диссертацией. - Пожалуйста, не говорите! (Aditz burutugabea)* (Караванов, 2005: 144). Izan ere, aditz burutua erabiliko bagenu, abisu izaera hartuko luke esaldiak, baina testuinguru honetan abisu baten balio pragmatikoa ez litzateke zuzena izango.

3.3. Aspektua aginteran eta informazio egitura

Zenbait kasutan, aspektua egoera pragmatikoaren arabera hautatzen da eta aspektuak balio modala hartzen du. Komunikazio-egoeraren arabera, aditz burutugabeen eta burutuen balioen arteko desberdintasuna subjektiboa izan daiteke; izan ere, egoera horietan aspektuek egoera estralinguistiko berbera adierazten dute, “munduaren irudi” bakarra eta berbera, baina hiztunaren subjektibotasunak aspektu bat ala bestea erabiltzera bultzatzen dezake (Караванов, 2005: 5).

Egoera zehatz batean aurreikusten ez ziren ekintzak adierazteko aditz burutuak erabiltzen dira, eta aurreikusten diren ekintzak adierazteko, aditz burutugabeak. Hona hemen adibide bat:

22. adibidea: - *Возьмите конфету!* (Aditz burutua) (Караванов, 2005: 151) /
- *Берите конфету!* (Aditz burutugabea)

Aspektu burutuaren erabilera aginteran gehien erabiltzen dena da, baina kontuan izan behar da ez dela erabil daitekeen bakarra, oso paper garrantzitsua betetzen baitu komunikazio-egoerak aspektuak aginteran duen erabileran. Adibidez: gozokia zure gonbidatuaren aurrean badago, mahaiaren gainean, aditz burutugabea erabil dezakezu gonbidatuari hitz egiten diozun lehenengo aldian (*Берите конфету!*). Nola liteke hori? Komunikazio-egoera horretan (gonbidatua mahaiaren aurrean eserita egon eta gozokia bere aurrean badago), aurreikus daitekeelako gonbidatuak, nahi izanez gero, gozokia har dezakeela; beraz, ekintza egoeran aurreikus badaiteke, erabil daiteke aditz burutugabea inolako akatsik gabe.

Kontua aldatu egiten da, ordea, komunikazio-egoera horretan ekintza ez denean aurreikusten. Honako kasu honetan, adibidez, hartzailearekin hitz egiten den lehenengo aldian, aditz burutua bakarrik erabil daiteke:

23. adibidea: - *У тебя есть что-нибудь к чаю? - Возьми торт, он стоит в холодильнике.* (Aditz burutua) (Караванов, 2005: 152)

Egoera horretan, tarta ez da agertu komunikazio-egoeran lehenago; beraz, egoera horretan ez da aurreikusten hartzaileak tarta hartuko duenik. Hizlarietako batek lagunari aurrez tarta eskaini ostean bakarrik erabili ahal izan da aditz burutugabea berriro tartari erreferentzia egiteko; hau da, informazio berria aditz burutuen bidez ematen da eta aditz burutugabea informazio zaharra errepikatzen denean erabiltzen da. Honelako egoera batean, adibidez:

24. adibidea: - *У тебя есть что-нибудь к чаю? - Возьми торт, он стоит в холодильнике.* (Aditz burutua) - *Спасибо, не надо. - Бери, бери, не стесняйся!* (Aditz burutugabea) (Караванов, 2005: 152)

Ekintza bat aurrez eskatu denean (aditz burutuarekin) eta ez bada hasi, ekintza horri hasiera emateko aditz burutugabea erabiltzen da, jada aurrez eskatu delako. Eskaria aditz burutugabearekin errepikatutakoan, hizlariak larrialdi kutsua edo pazientzia galtzeko zorian dagoela transmiti dezake:

25. adibidea: - *Расскажи, что случилось. Что же ты молчишь? Рассказывай!;*
- *Возьми эти деньги. Они тебе будут нужны. Ну, чего ты ждёшь? Бери!*
(Levine, 2009: 256)

Horrelako adibideak oinarriztat hartuta, zenbait gramatika-liburutan (adibidez, Pulkina, 2000; 332. or), aspektuaren erabilera bat edo bestea “adeitsutzat” jotzen dute, baina informazio egituraren arabera egin bada aspektu zehatz baten hautua, ez du zertan ez izan “adeitsua” edo “hizkuntza onekoa”. Azken finean, komunikazio-egoerari ongi erreparatu eta egokiena den aspektua erabiltzea da aukerarik onena.

4. MATERIAL DIDAKTIKOAREN ANALISI PRAKTIKOA

Analisi praktikoari ekin aurretik, hainbat kontu aipatu nahi nituzke. Agintera ikasleak beti oso presente duen modu bat da, eta baliteke hain zuzen ere arrazoi horregatik ez ematea behar duen adina garrantzia agintera bera lantzeari. Ikusiko dugun moduan, askotan aginteraren azalpena bere eraketara mugatzen da, eta ez da erabilerari buruzko azalpen sakonik ematen. Ikasleak, ordea, eskuliburu bat eskuetan hartzen duen unetik izango ditu aginterako formak inguruan: ariketa bakoitzeko enuntziatuak aginteran doaz, adibidez.

Horrez gain, irakasleak kontuan hartu behar du errusiera irakasteko erabiliko duen liburuaren hizkuntza ere; izan ere, ikasle taldearen ezaugarrien ondorioz, agian ezingo ditu erabili zenbait liburu. Beraz, eskuliburuak edo gramatikak hautatzen hasi aurretik taldea aztertu beharko du irakasleak, eta ondoren, ikusi ezaugarri horien arabera zein izango litzatekeen aukerarik egokiena. Hala ere, pertsonalki, errusiera hutsean dauden liburuen aldeko apustua egingo nuke nik, nahiz eta hasieran zaila gerta litekeen. Hasiera-hasieratik errusiera ikustera eta entzutera ohitzen badira ikasleak, errazagoa egingo zaie bidea gerora, badakigun arren hasiberriekin oso zaila izan daitekeela hori praktikan jartzea.

4.1. Eskuliburu orokorrak

Atal honetan, eskuliburu orokorrek aginterako aspektuaren erabilera lantzeko zer eskaintzen diguten aztertuko dut. Kontuan izan behar da, aspektuaren erabilera aginteran A2-B1 mailak baino lehenago ez dela agertzen, oro har; falta hori sumatzen da *Дорога в Россию* liburuaren lehen bi ataletan (A1 eta A2) eta *Русский сезон* liburuaren lehen atalean (A1), adibidez.

4.1.1. *Русский язык: 5 элементов*

Aztertuko dudan lehen eskuliburua *Русский язык: 5 элементов* izango da. Eskuliburu honek 3 atal ditu, A1 mailatik hasi eta B1 mailara arte, eta aginterako aspektuaren erabilera ez da agertzen azken liburu horretara arte. Lehenengo atalean, 13. gaian, 17. gaiko ariketa batean eta 20. gaian azaltzen da agintera. Bigarren liburuan (A2), 28. gaian (125. or), aginteran aditz burutu baten erabilera agertzen da lehen aldiz: *искать*, *находить* eta *найти* aditzak lantzeko ariketa batean, ikasleari aginteran dauden aditzak aukeratzeko eskatzen zaio, esanahiaren arabera.

Задание 167. Искать/найти или находить/найти? (125. or)

в) Императив: ищи(те), находи(те), найди(те), теряй(те).

1. Ниночка, _____, пожалуйста, в газете рекламу конкурентов, я хочу её прочитать. 2. Никогда не _____ надежду! 3. Наша фирма - банкрот. _____ новую работу! 4. Не _____ эту книгу. Она у папы, он её сейчас читает. 5. Начинай работать прямо сейчас! Не _____ время! 6. У вас очень усталый вид _____ время для отдыха! 7. _____ нашу продукцию в магазине "Всё для дома"! 8. Не _____ там деньги, их там уже нет! 9. Рекс! _____!

Ikusi dezakegun moduan, aspektuaren erabilera sartzeaz gain, ezezko aginterak ere sartzen ditu. Nahiz eta kasu horretan helburua ez den aginterako aspektua lantzea, nire ustez horrelako ariketak sartzea ez da aukerarik egokiena, oraindik ikasleak ez duelako gramatikaren alderdi hori landu eta garaian garaikoa agertzea hobe delako, eta beste ariketaren batekin ordezkatzeko batego, egokiagoa deritzot aditz horiek beste moduren batera lantzeari. Gainera, ziur aski, irakasleak nahiago izango du egoera horretan bestelako azalpenen bat ematen ez hastea, ikasleak nahastu besterik ez bailirateke egingo.

Berdina gertatzen da 30. gaian, *брать* eta *взять* aditzekin: aginterako forma lantzeko aspektua hautatu behar den ariketa bat sartzen dute (задание 213, б: 149. or); aurrerago, *принимать/принять* eta *понимать/понять* aditzak ere sartzen dituzte (задание 218, б: 153. or).

Aginterako aspektuaren erabilera lantzen, ordea, 3. atalean (B1) hasten dira. 55. gaian (212. or), aginteraren azalpena dakarkigute, baina aspektuen arteko bereizketak ez dira ageri 216. orrialdeko задание 283ra arte:

ЗАДАНИЕ 283. Сыграйте диалоги. (He + imperative imperf. + почему?)

Модель: Я хочу посмотреть этот фильм. → (я ↔ ты)

— Я хочу **посмотреть** этот фильм.

— **Не смотри** этот фильм, он скучный!

1. Мы хотим там пообедать. _____
2. Я хочу купить этот компьютер. _____
3. Давай приготовим этот коктейль. _____
4. Уже полночь, но я хочу погулять. _____
5. Я хочу похудеть на 10 килограмм¹ за неделю. _____
6. Мы хотим приготовить салат. _____
7. Он хочет ещё раз покурить. _____
8. Мы хотим пойти в кино. _____
9. Я хочу купить тебе шубу. _____
10. Мы хотим найти решение. _____
11. Давайте послушаем рок! _____
12. Давай съедим торт! _____

Ariketa horretan, enuntziatuan bertan azaltzen zaio ikasleari jarraitu behar duen egitura, baina ez zaio inolako azalpenik ematen ezezkoaren ondoren aspektu burutugabea erabiltzearen zergatiari buruz. Hurrengo orrialdean (217. or), badago ariketa bat aginterako aspektuaren erabilerari buruz.

ЗАДАНИЕ 287. Императив несовершенного или совершенного вида (imperf. или perf.)¹.

«Холодный» императив ↔ «Горячий» императив

(приглашение / разрешение — imperf.) (просьба / требование — perf.)

Делайте что хотите! ↔ **Сделайте** это для меня, пожалуйста!
Говори, я тебя слушаю! ↔ **Скажи** мне! Я прошу тебя!

Если **вы хотите**, вы можете это делать. ↔ **Я хочу**, чтобы вы это сделали.

Модель: (читать / про~) Вот твой газета. **Читай!** ↔ **Прочитай** это слово! Я не знаю, что оно значит. Может быть, ты знаешь?

1. (говорить / сказать) Я слушаю! _____! ↔ Я хочу это знать! _____ мне!
2. (покупать / купить) Пожалуйста, _____ мне это платье! Оно мне очень нравится! ↔ Да, это красивое платье, _____!
3. (смотреть / по~) Вот DVD [дивиди]. _____! ↔ _____ этот фильм, пожалуйста! Я очень хочу знать, что ты о нём думаешь.

¹ Не забывайте также, что императив несовершенного вида используется для мотивации начала действия (*Говори! Вставай!*) и регулярного действия (*Чаще гуляй!*).

Adibideen bidez erakusten zaio ikasleari aspektuen erabileraren arteko bereizketa, eta ariketaren enuntziatuan bertan, oin-ohar bat gehitzen da azalpen batekin. Ikus daitekeen moduan, aspektuak agintera “hotza” eta agintera “beroa” bezala bereizten ditu, eta horrek ez du zentzurik. Deskribapen teorikoan ikusi dugu adeitasuna ez dagoela zuzenean lotuta

aspektuarekin; adibidez, polizia batek emaitza eskatzen badu, *Девушка, подойдите ближе!*, nahiz eta aspektu burutua erabili, agindu erabat hotza izan daiteke. Beraz, azalpen horrek ez du balio eta irakasleak azalpen sakonagoa eta zuzena emateko beharra izango luke. Gainera, ariketa bakarra dago aspektuaren erabilera lantzeko, eta beraz, motz gelditzen da. Jarraian dagoen ariketan (*задание 288*, a: 218. or), lanketa teorikoagoa ageri da:

ЗАДАНИЕ 288. (© стр. 328–329.) **Текст-притча «Жадный богач».**

Новые слова:

мудре́ц (← му́дрый), **бога́ч** (← бога́тый), **жа́дный**, **действительно**, **ми́мо**, **смея́ться** / за~, по~ (над + instr.), **улыба́ться** / улыбн|у́ться (dat.), **купа́ться** / ис~ (где?), **па́дать** / упáс|ть (l + куда), **пуга́ться** / ис~ (+ gen.), **хвата́ть** / схват|и́ть (acc.), **тон|у́ть** / у~ (где?)

а) Прочитайте эти фрагменты и соберите из них текст. Проанализируйте вид императива.

Ikasleari testu-zatiak irakurri eta aginterako forman dauden aditzen aspektua analizatzeko eskatzen zaio. Pertsonalki, horrelako ariketa oso baliagarriak direla iruditzen zait, ikasleari teoria barneratzen laguntzen diotela, eta gainera, baliteke azalpen gramatikala entzundakoan sortzen ez diren galderak etortzea burura.

4.1.2. *Поехали!*


Aztertuko dudan hurrengo eskuliburua *Поехали!* da. Liburu honek bi atal ditu: *Поехали! 1* (A1) eta *Поехали! 2* (A2), azken hori bi zatitan banatua. Orokorrean, eskuliburu ona dela esango nuke, informazio osatua ematen duelako bai hiztegiaren aldetik, bai gramatikalki. Ariketen aurretik, azalpen-taulak ageri ohi dira eta puntu garrantzitsua da hori, nire ustez; hala, ikasleak badu nora jo, zalantzarik sortuz gero, bakarrik ari bada lanean.


Lehenengo liburuan (A1), ez dugu aurkituko aginterako aspektuaren erabilera lantzen duen ariketarik, maila baxuegia delako, baina agintera landu nahi izanez gero, liburu horretako 27. gai osoa (218.-222. or) aginterari buruzkoa da. Aginteraren azalpenaren jarraipena hurrengo liburuan (*Поехали! 2.I.*) topatuko dugu (105.-106. or) eta liburu horretan bertan aurkituko dugu aspektuaren erabilera ere (119. orrialdetik aurrera):

Хит-парад популярных форм императива	
imperf. (НСВ)	perf. (СВ)
говори́те	скажи́те
расска́зываюте	расскажи́те
пока́зываюте	покажи́те
дава́йте	да́йте
встава́йте	вста́ньте
бери́те	возьми́те
покупа́йте	купи́те
пиши́те	напиши́те
пе́йте	вы́пейте
е́шьте	пое́шьте / съе́шьте
сади́тесь	ся́дьте
приходи́те	приди́те
приноси́те	принеси́те
гото́вьте	пригото́вьте
ста́вьте	поста́вьте
закрыва́йте	закро́йте
открыва́йте	откро́йте

Atalari sarrera emateko, ikasleari aginteran gehien erabiltzen diren aditzen adibideak ematen zaizkio. Kontuan izanda A2 mailako liburua dela eta aurrez agintera landuta dagoela, taula hori soberan dagoela iruditzen zait; izan ere, ikasleari aginterako formak jada osatuta emateak ez dio mesede handirik egingo, maila horretan agintera eratzeko gai izan behar duelako eta modu horretara, ahalegin hori egin beharrik ez duelako. Segidan, aspektu burutua eta burutugabea bananduta azaltzen ditu:

Скажи́те, пожа́луйста, ско́лько сто́ят вита́мины?
 (perf. — я хочу́ знать)
 perf. (СВ) — просьба или приказ







Задание 2

Используйте в просьбах императив СВ по модели.

Попросите дóктора сде́лать опера́цию.

— Дóктор, сде́лайте опера́цию! (обе формы — perf.)

1. Попросите дóктора дать вам табле́тку.
2. Посоветуйте Лéне сходи́ть к врачу́.
3. Посоветуйте Са́ше погово́рить с астрóлогом.
4. Попросите Андре́я купи́ть аспири́н.



5. Попросите Лю́бу показáть, что у неё боли́т.
6. Попросите Свéту сде́лать вам ко́фе.
7. Посоветуйте Анто́ну посидéть до́ма.
8. Попросите Вéру повери́ть вам.
9. Попросите Наде́жду посоветова́ть, вам что де́лать.
10. Попросите учи́теля расска́зать анекдо́т.

Пожалуйста, **говорите** всё, что хотите!
(imperf. НСВ — что **вы** хотите)
imperf. НСВ — приглашение или разрешение






Задание 3

Используйте императив НСВ для выражения разрешения по модели.

- Мόжно мне рассказáть прáвду? — Расскáзывайте, у нас нет цензúры.
— Мόжно мне встать? — Пожа́луйста, вставáйте! Вы ужé здорóвы!

1. Мόжно мне позвонíть?
2. Мόжно мне посмотрétь вáши докумéнты?
3. Мόжно мне показáть вам фотогрáфии?
4. Мόжно мне взять вáшу рúчку?
5. Мόжно мне постáвить сюdá сúмку?
6. Мόжно мне вы́пить кóфе?
7. Мόжно мне записáть ваш телефóн?
8. Мόжно мне купíть эту картíну?
9. Мόжно мне открýть окнó?
10. Мόжно мне заказáть нóмер в гостíнице?
11. Мόжно мне принýть душ?
12. Мόжно мне нарисовáть ваш портрét?



Azalpena laburregia izateaz gain, aspektu bakoitza bere aldetik lantzeko ariketa bana gutxiegi da, eta ariketa horiek, gainera, errepikakorrak direla iruditzen zait. Bien arteko desberdintasunak errazago barneratzeke, ezinbestekoa izaten da bi aspektuak nahastuta ageri diren ariketaren bat egitea; beraz, esan daiteke ez dela nahikoa eskuliburu honek eskaintzen diguna. Eskuliburu honek, ordea, aurreko materialean aurkitu ez duguna eskaintzen digu: ezezko aginteren aspektua.

Императив НСВ / СВ в предложении с отрицанием



Открой окно, здесь жарко! — Не открывай окно, здесь холодно!
 perf. Не + imperf.
 Надо получить результат. Не надо начинать процесс.

Но!

Смотри, не забудь билеты!

Не + perf.

Я знаю, что ты не хочешь этого делать (процесс), но это может случиться (результат). Осторожно!



Задание 4



1. Пожалуйста, мне вечером! (звонить — позвонить)
2. Можно посмотреть, что вы делаете? — Конечно,
(смотреть — посмотреть)
3. Пожалуйста, никогда не, что вы здесь видели.
(рассказывать — рассказать)
4. Смотри не сегодня паспорт! (забывать — забыть)
5. Не окно, здесь так жарко! (закрывать — закрыть)
6. Ты идёшь в магазин? Пожалуйста, мне кэтчуп.
(покупать — купить)
7. Я хочу прочитать вам свои стихи! — Хорошо, у вас есть 10 минут.
.....! (читать — прочитать)
8. У меня болит голова., пожалуйста, таблетки! (давать — дать)
9. Если можете не писать — не! (писать — написать)
10. Смотри не деньги! (терять — потерять)

11. Вы хотите что-то сказать? Пожалуйста, (говорить — сказать)
12., пожалуйста, какая это улица? (говорить — сказать)
13. Пожалуйста, не меня об этом! лучше Папу! (спрашивать — спросить)
14. У нас завтра праздник! Пожалуйста, гостей! Только не Эдуарда! (приглашать — пригласить)
15. Не свою биографию, лучше анекдот! (рассказывать — рассказать)
16. Только не мясо: я вегетарианка! И пожалуйста, салат! (заказывать — заказать)
17. мороженое и фрукты, но не водку! (покупать — купить)
18. Не мне ночью, лучше завтра утром! (звонить — позвонить)
19. Не телевизор, лучше музыку! (включать — включить)
20. Пожалуйста, ужин! Только не макароны! (готовить — приготовить)

Задание 6

Вариант 1 (индивидуально): вы: врач. Дайте советы пациентам.

Вариант 2 (в группе): выберите роли и составьте диалоги врача с пациентом.

(См. приложение, стр. 150.)

Gainontzeko kasuetan bezala, azalpen labur bat dakarkigu ariketaren aurretik eta nahiko garbi ulertzen bada ere, irakasleak osatu beharko lukeela deritzot, aspektuen balio modala azalduz, adibidez. Horrez gain, kasu honetan ere, ariketa bakarrarekin ez da nahikoa, nahiz eta oraingoan bi aspektuak nahastuta dauden. Hala ere, ez da ariketarik egokiena, aditz burutua jarri behar den kasu guztietan *смотри* ageri baita, eta horren ondorioz, ez dio ia ahaleginik eskatzen ikasleari. Aditz horiek lantzeko aproposa da 6. ariketa: ahozko ariketa bat izanda, ikasleak hutsetik sortu behar ditu gomendioak. Horrelako ariketek ahalegin handiagoa eskatzen diote ikasleari eta asko ikasten du, ez duelako, besterik gabe, bi aditzen artean hautatu behar.

4.1.3. Русский язык

Русский язык eskuliburuari buruz mintzatuko naiz jarraian. Bi liburuki daude: *Русский язык для начинающих. Книга 1* eta *Русский язык. Средний этап. Книга 2*. Eskuliburu hauetan, gramatikako azalpen guztiak jarraian ematen dituzte eta ondoren, beste atal batean datoz landutako alderdi guztiei dagozkien ariketak. Lehenengo liburua

hasiberrientzat izanik, oinarritzko agintera bakarrik ageri zaigu: eraketa (105.-106. or). Bigarren liburuan ekiten diote aginteran aspektuaren erabilera azaltzeari (117. or):

Вид глагола в императиве

Заходите к нам почаще. Пиши мне, не ленись	Зайдите к нам на минуту. Напиши немного о себе.
---	--

VII. Дополните предложения глаголами, употребив их в императиве совершенного или несовершенного вида с отрицанием **не** или без него.

Образец: Поставь цветы на окно.

Не ставь их туда, пусть стоят на столе.

1. ... мне эту фотографию. ... , она неудачная.	показывать показать
